

Ezintasun fisikoa eta organikoa duten pertsonen Espainiako Konfederazioa [La Confederación Española de Personas con Discapacidad Física y Orgánica (COCEMFE)] 1980. urtean sortutako irabazi asmorik gabeko GKE bat da.

Desgaitasun fisikoa eta organikoa duten pertsonen eskubide guztiak bermatuko dituen gizarte inklusiboa lortzea da erakunde honen helburu nagusia.

Desgaitasun fisikoa eta organikoa duten pertsonen aldeko elkarte mugimendu desberdinak koordinatzen, ordezkatzen eta sustatzen ditu. Estatu mailako autonomia-erkidego desberdinetako zein probintzia desberdinetako 92 erakundek osatzen dute konfederazioa. Aldi berean, desgaitasuna duten bi milioi eta erdi lagun baino gehiago ordezkatzen dituzte, eta sare erraldoi horren baitan 1.600 elkarte baino gehiago biltzen dituzte.



COCEMFE

C/ Luis Cabrera, 63
28002 MADRID

91 744 36 00

cocemfe@cocemfe.es
www.cocemfe.es



¿INVISIBLES?

**Ez gara ikusezinak,
ikus gaitzaten ordua heldu da.**



COCEMFE

Confederación Española de Personas
con Discapacidad Física y Orgánica

Invisibles

, desgaitasun organikoa dugun pertsonok ikusezinak bagina moduan tratatzen gaituztela sentitzen dugu. Horregatik, **COCEMFEn**, bizitzaren arlo guztietan presente egoteko eta gu aintzat hartzeko dugun eskubidea aldarrikatzen dugu. Asko dugulako emateko, ez garelako ikusezinak.

- 1.** Desgaitasuna bera ikusarazteak eta ofizialki aitortzeak gizarteko kide garela eta gizartean parte hartzen dugula berresten du.
- 2.** Babes eta gizarteratze laguntzak eta neurriak izateko, administrazio publikoek, politika publikoek eta araudiek gure egoera onartu behar dute.
- 3.** Beharrezkoak ditugun gizarte eta osasun-zerbitzuak izateak gizarte-zaurgarritasun graduak murrizten ditu, eta bide batez, bai pobrezia-egoeretatik, bai gizarte-bazterketa egoeren eraginpean egotetik urruntzen gaitu.
- 4.** Existitzen diren osasun tratamendu desberdinak eskuratzeak eta horretarako beharrezkoak diren arreta integral eta prebentiboak izateak, osasun arretarako dugun eskubidea gauzatzeko aukera ematen digu. Izan ere, gure ongizatearen eta bizi-kalitatearen funtsezko elementuak dira.
- 5.** Garrantzi handikoa da babes ekitatiboa, hurbilekoa eta lurraldeen arteko desorekarik gabekoa bermatzea, horrek emango baitigu zerbitzuak berdintasunez eta bizilekuaren arabera bazterketarik gabeko eskuratzeak.



**Ez gara ikusezinak,
ikus gaitzaten ordua
heldu da.**

- 6.** Berebiziko garrantzia du Ikasketa-zentroetan, lan-zentroetan, aisialdiko lekuetan, kultura-aretoetan eta kirol-guneetan baliabide irigarriak eta egokituak egotea, gure bizitza-proiektuak ondo garatzeko eta gizarteari esparru horietan ekarpenak egiteko aukera ematen digulako.
- 7.** Gizarte honetan berdintasunean parte har dezagun, gure desgaitasunari buruzko ulermena zein kontzientziazioa ezinbesteko jardunbideak dira.
- 8.** Gizarteratzea eta gizarte-partaidetza sustatzeak gure ongizate psikoemozionala babesten du, ondorioz desgaitasunaren areagotzea ere ekiditen du.
- 9.** Genero- ikuspegia desgaitasun organikoa duten emakume zein nesken desabantailen aurka borrokatzeko funtsezkoa da, baina baita desgaitasunak dakarren gorputz-esperientzia ikuspegi eraldatzaile batetik ulertzeko ere.
- 10.** Gure eskubideak aitortzea eta gizarte-oztopoak ezabatzea ezinbestekoa da aukera berberak izateko eta gizarte-justiziaren eskaerari erantzuteko.



**Ez gara ikusezinak,
ikus gaitzaten ordua
heldu da.**